

De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com



## Rinus Roelofs • Artista

‘Metamorfosia’ izeneko erakusketa jarri du Rinus Roelofs artista eta matematikariak Iruñeko planetarioan.

# «Zoriontsu ere senti daiteke jendea ulermenari esker»

Iñigo Astiz Iruñea

Matematikaria eta artista da Rinus Roelofs (Herbehereak, 1954), eta bi jakintzak batzen ditu arte lanetan. Zientzialariak eta artistak azken finean biek gauza bera bilatzen dutela dio: existitzen denetik abiatuta, oraindik existitzen ez dena sortzea. Matematikak eskaintzen omen dizkio berari horretarako tresnak, eta egiturak sortzen ditu hari esker. Iruñeko planetarioan daude haren lanetako batzuk ikusgai, urriaren 30era arte, *Metamorfosia* izeneko erakusketan.

**Diozunez, liluratik jakintzarako bidea da zurea.**

Egiturak dira nire lanaren oinarria. Mota askotakoak izan daitezke egiturak, eta leku askotan egon daitezke. Lurrean, adibidez, baldosa karratuz osatutakoa. Oso egitura txepela da hori, baina badira ibilian-ibilian deskubritzen diren hainbat egitura interesgarri. Liluratzan naute, eta gero estudioan haiek harrapatu eta ulertzen saiatzen naiz. Urrats bat harago joatea da nire asmoa gero: liluratu nauen hori eskultura bihurtzea eta ikusleari nik neuk bizitako lilura hori transmititzea. **Horregatik daramazu beti kamera aldean.**

Bai, liluratzan nauen hori gogoan

hartzeko. Gehienetan, ordea, estudioan hasten da nire lana, hiru dimentsiotan margotzeko aukera ematen duten ordenagailu programekin. Egitura bat egin, eta mugituz gero zer pasatuko litzatekeen ikertzen hasten naiz. Mugimendu horretatik abiatuta aurkitzen ditut egitura berriak.

**Denbora luzez aurkakotzat jo izan ditu jendeak artea eta zientzia.**

Bai. Pizkundearen garaian nahiko ohikoa zen bi arloak konbinatzen zituen jendea egotea. Da Vinci da ezagunena, baina asko ziren. Lotura hori hautsi egin zen, ordea, eta orain gutxira arte edo zientzialaria edo artista izan da bat. Inoiz ez biak batera. Baina zientziak artea inspira dezake, eta artistek ere inspira ditzakete zientzialariak. Pentsaera ezberdina da, baina helburu bera dute: gauza berriak bilatzea. Existitzen denetik abiatuta, oraindik existitzen ez denaren bila abiatzen dira denak.

**Bistakoa da zu M. C. Escher artistaren lanetatik abiatu zarela maiz.**

Bera ere Herbehereetakoa zen, eta, sekula ezagutu ez banuen ere, asko eragin dit, bai. Nire ustez, piezak baino lehen egiten diren zirriborroak dira artisten lanik interesgarrienak, eta nik aukera izan nuen Escheren zirriborro guztiak ezagutzeko. Askok ikasi



IÑIGO ASTIZ

nuen haren lanari buruz eta haren pentsaera sistemari buruz.

**«Pasioa ere badago matematiketan». Jabier Barrallo matematikari eta Iruñeko erakusketaren komisarioaren aipu bat da, zure lanari buruz idatzitako testu batetik harturikoa.**

Norbait matematikari buruz ari zaizunean eta une batez esaten dizuna ulertu duzula pentsatzen

**«Zientziak artea inspira dezake, baina artistek zientzialariak ere»**

**«Piezak sortu aurreko zirriborroak dira artistek egiten dituzten lanik interesgarrienak»**

duzunean emozioa sortzen da. Zer gertatzen den ulertzen laguntzen du matematikak, eta ulermen horrek pozik jar dezake bat.

Eta bai, zoriontsu ere senti daiteke jendea ulermenari esker.

**Metamorfosia deitu duzu erakusketan. Zergatik?**

Transformazioa da nire kezka nagusietako bat. Gauza bat beste gauza bat bihurtzea da metamorfosia. Gauza berari begira, gauza berriak ikusi ahal izatea. Tresna batzuk behar dira hori egiteko, eta hamaika trikimailu eskaintzen ditu matematikak horretarako. Positiboa negatibo bihurtzea, inbertsioa, ispilu jokoa egitea... Escheren metamorfosia izeneko irudiari begira, adibidez, irudi batetik beste bat sortzen duela eta sail bat osatzen dela ikus daiteke. Matematikatik hartzen ditut nik hori egiteko tresnak.

**Erakusketan ikus daitezkeen animazioetan ikusten da argien transformazio hori. Baina nola aukeratzen duzu gero prozesu horretako puntu zehatz bat eskultura egiteko?**

Prozesu horretan nabilela egitu-

ra zehatz bat ikusi, eta ederra iruditu gero erabakitzen dut harekin eskultura bat egitea.

**Ederra hitza erabili duzu, eta ez interresgarria edo erabilgarria, adibidez. Irizpide estetiko da nagusi, beraz?**

Artista lana ez nuen matematikarekin loturik hasi. Arte eskolan giza irudiak eta halakoak marrazten ikasi nuen, eta esango nuke alde estetiko bat beti izan dudala presente. Arte kontzeptualari ekin nion gero, eta matematikena ondoren etorri zen.

**Matematikak ikasi zenituen lehenik, eta artea gero. Nola batu dira biak?**

Unibertsitatean sartzerakoan, nik bi interes nituen: matematika eta artea. Eta bietan nintzen ona. Artea aukeratuz gero, baina, banekien gizon pobrea izaten bukatuko nuela, eta matematika ikasi nuen horregatik [kar, kar]. Horretan aritu nintzen denbora batez, baina ez ninduen betetzen, eta artera pasatu nintzen. Orain pozik nago, biak batzeko gai naizelako.